

ANGELUKO IKASLEAK.0306UNEKO ERAKASKERA1996-97 IKAS-URTREA.LAUGARREN ERAKASPENADELEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA

1. Zertan erretzen ziren gaztenak (gaztanak)?
2. Gaztenak zer aintzen, zer zer zuten gizonak?
3. Aitak zer kondatu zioten haurreri?

PIARRRES

OIHANALDEAN 2

Gaztenak erreak ziren bizkitartean. Bi, hirur aldiz paderaren atzean bertatik burdina batekin idekirik eta berriz hetsirik, padera hoi bi eskuez azkenean harturik, haren barneko oñ-oña beltzak hustu zituen amak, —————>, gaitziru⁵ handi batean hedatu estalki il batetara. Esku-zartaka eman ziren Frantxa eta Xaneta, oihuka Gantxume. Xuriko hurbilduzen hura ere, bainan, muturra errerik, zalukara joan, mahain-azpian gattuarrekin aztaparkatzeraz...

Gaztenak pitta bat hoztu artean, aita bere zizeluan, Piarres eta Ganix mahainean, eltzekariari lothu ziren, kurutzearen seinalea eginik hiruek, lehen ahamenaren aintzinean. Eltzekari ona egiten zen Oihanaldean, gauzarekilako eltzekaria; eta, bakotzak berak hartuz bere neurria, gogo onez ari ziren beraz hiruz gizonak. Baso bat arno gero, beren etxe-arnotiki: gaztena⁶ gozoak, urik gabeko esne lodia... Bertze zertaz gutiziatuko ziren oraino? Erregeak berak ederrikiago jaten othe zuen eta edaten, bere jauregian?

Emaztekiak, haurrak hasiak ziren aldiz gaztena jaten, suari hurbil oro, kadira apha edo alki ttikien gainean. Ezpain-kokotsak, sudur-muturrak hala hala beltz beltza eginak, Gantxume, Frantxa eta Xaneta burlan ari zitzaizkon aitari: erne ziteken; bertzela, bat ez zitzaizotela ixtantean geldituko!

Eta aitak, zurezko mailu batekin bere gaztenak leherturik, kondatu zioten, lehenago, haren haur denboran, Oihaso gain heke gaitzak gaztena ondoz ihaurri zirela. Bainan, zorigaitzez, Baxenabarren menditarreri bezala, gaitza lothu zitzaizoten heieri ere Senperen. Eta orai, bakar ondo batzu ziren xutik gelditu, Amotzen, Helbarron-Usondoko paretan, eta Oihanaldeko bixkarrean... Eta, zinez dolu zuten hortaz gure haurrek eta Gantxume mintzo zen jada, Oihanaldeko bazterrak oro gazten-ondoaz landatu beharrez. Nork zakien eta, gaitz itsusia ez othe zenez oraikotik mugaz handirat sekulakotz iragana?

Gantxume	= semea	} Haur ttipiak
Frantxa	= alaba	
Xaneta	= alaba	
Ganix	= seme haundia	
Piarres	= seme gehiena	
Xurik	= xaburra	

III ADITZ IKASKUNTZA.

31. Ari zitzaizkon 32. Erne zitezen
33. Kondatu zioten 34. Lothu zitzaizoten
35. Nork zakien.
31. IZAN - régime Indirect. Indic. Imparfait.

Hez ziren = Ils'étaient

Hez = eux. Zitzaizkion (à moi) = ils m'étaient

Zitzaizkizun (à vous) = ils vous étaient

Zitzaizkion (à lui) = ils lui étaient

Zitzaizkizun (à nous) = ils nous étaient

Zitzaizkizuen (à vous) = ils vous étaient

Zitzaizkien (à eux) = ils leur étaient

32 IZAN. Potentiel. Imparfait

Ni izan nintzen = je pouvais être

Hi " hintzen = tu pouvais être

Zu " zintzen = vous pouviez être

Hura " zitzen = il pouvait être

Gu " gintzen = nous pouvions être

Zuek " zintzen = vous pouviez être

Hez " zitezken = ils pouvaient être

33 UKAN. Conj. à dble cplt. Indic. Imparfait

Hari = à lui-

Nik nion = je le lui avais

Zuk zinion = vous le lui aviez

Harek zion = il le lui avait

Guk ginion = nous le lui avions

Zuek zinioten = vous le lui aviez

Heiek zioten = ils le lui avaient